



Salmenta-teknikari laguntzaile eta loradendetako saltzaile izateko programa

PROIEKTUAREN HELBURUAK:

- Parte-hartzaileak gaitzea merkataritza alorreko lanbide-gaitasunak eskura ditzaten eta gaitasun horiek era horretako denden premietara moldatzea.
- Merkataritza alorrari behargin kualifikatuak eskaintzea, sektore horren produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzen lagunduz.
- Pertsonen lan-esparruan sartzen laguntzea.
- Gaitasun pertsonalak hobetzea. Autonomia eta gizarte-trebeziak.

BETEBEHARREKO BALDINTZAK:

- Lanik ez izatea edo lan prekarioan jardutea (urtebeteen lau hilabetez edo denbora gutxiagoan lanean ibilitakoak).
- 25etik 50 urte bitartekoa izatea.
- Eibarren erroldatutakoa izatea.
- Gaztelaniaz, mintzatuan eta idatzian, ulermen maila egokia izatea.
- Kualifikaziorik ez edo kualifikazio gutxi izatea.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

Eskaerak **2019ko urtarilaren 18tik otsailaren 1era** (egun biok barne) aurkeztu behar dira. Hauek dira aurkeztu behar diren dokumentuak:

- a) **Salmenta-teknikari laguntzaile eta loradendetako saltzaile izateko** programan parte hartzeko eskaera behar bezala beteta. PEGORAn eta Udalaren webgunean dago orria (www.eibar.eus).
- b) Eskatzailearen NANA edo horren balio bereko dokumenturen bat.
- c) Legezko ordezkapenaren kasuan, ordezkariaren NANA edo horren balio bereko dokumenturen bat eta ordezkapena dokumentu bidez egiaztatua. Egiaztapen hori, zuzenbidean baliozkotzat har daitekeen edozein bitartekoren bidez egin daiteke (notario-ahalordeak, eskriturak...).
- d) LANBIDEk egindako txostena langabe gisa inskribatuta egondako aldiei buruzkoa.
- e) Lan-bizitza eguneratua edo curriculum vitae eguneratua.

TRAMITAZIO KANALAK:

- **Elektronikoa:** udal web orrian, www.eibar.eus.
- **Presentziala:** PEGORA (Herritarren Zerbitzurako Bulegoa) Untzaga plaza 1. Beheko solairua.

PROGRAMAREN GARAPENA.

1. PARTE-HARTZAILEAK AUKERATZEA.
2. HASIERAKO PRESTAKUNTZA 100 orduko modulua
3. IKAS-EKINEZKO PRESTAKUNTZA 300 ordu Kontratuarekin (prestakuntza lantokian + prestakuntza teorikoa)
4. ORIENTAZIO-, EBALUAZIO- ETA SEGIMENDU-ZERBITZUA prozesu osoan zehar.